

## Bestelako Xedapenak

### KULTURA SAILA

1235

AGINDUA, 2010eko azaroaren 22koa, Kulturako sailburuarena, Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Euskal Batzordeko idazkaria kargugabetu eta berria izendatzeko dena.

Maiatzaren 25eko 94/2004 Dekretuaren xedea da Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Euskal Batzordearen antolaketa, osaera, izendatzeko sistema, funtzionamendu araubidea eta zereginak arautzea.

Dekretuaren 7. artikulua xedatzen duenez, Batzordeko idazkari postua Kulturako sailburuak izendatutako saileko funtzionario batek beteko du.

Dekretuaren 7.3 artikulua, halaber, xedatzen du ezen, idazkari-kargua hutsik badago, betetzen duena kanpoan edo gaixorik dagoelako edo legezko beste edozein arrazoi dela-eta, Kultura Saileko beste funtzionario batek jardun dezakeela haren ordez.

Ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

**Lehenengoa.**– Juan Cruz Calvo Ruiz jauna Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Euskal Batzordearen idazkari kargutik kentzea.

**Bigarrena.**– Bakarne Agirre Arrieta andrea izendatzea Kiroleko Indarkeriaren Aurkako Euskal Batzordeko idazkaria.

**Hirugarrena.**– Agindu hau onartzen denetik aurrera jarriko da indarrean, alde batera utzita pertsona interesatuei noiz jakinarazten zaien.

**Laugarrena.**– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 22a.

Kulturako sailburua,  
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

1235

ORDEN de 22 de noviembre de 2010, de la Consejera de Cultura, por la que se procede al cese y nueva designación de la secretaria del Comité Vasco contra la violencia en el deporte.

El Decreto 94/2004, de 25 de mayo, regula la organización, composición, sistema de designación, régimen de funcionamiento y las funciones del Comité Vasco contra la violencia en el deporte.

Dicha regulación en su artículo 7 establece que la Secretaría del Comité corresponde a un funcionario o funcionaria del Departamento de Cultura designado por la Consejera de Cultura.

El citado Decreto establece en su artículo 7.3 que en caso de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal, la titular de la Secretaría podrá ser sustituida por otro funcionario o funcionaria adscrita al Departamento de Cultura.

En su virtud,

RESUELVO:

**Primero.** – Cesar a D. Juan Cruz Calvo Ruiz como Secretario del Comité Vasco contra la violencia en el deporte.

**Segundo.**– Nombrar a Dña. Bakarne Agirre Arrieta como Secretaria del Comité Vasco contra la violencia en el deporte.

**Tercero.**– La presente Orden sin perjuicio de su notificación a las personas interesadas, surtirá sus efectos a partir del momento de su adopción.

**Cuarto.**– Publíquese en el Boletín Oficial del País Vasco para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de noviembre de 2010.

La Consejera de Cultura,  
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.